

DIRU-SARRERAK

4.1. PREZIOAK:

Gure aplikazioaren prezioa bezeroaren beharren arabera egokituko da. Hasieran, aplikazioa TDAH, dislexia,itsuak edo gorrak diren ikasleei bideratuta egongo da. Horrela, prezioak haien beharren arabera desberdinak izango dira:

- **TDAH edo dislexia duten ikasleentzat:** 3.000 euro urtean.
- **Itsu edo gorrak diren ikasleentzat:** 6.000 euro urtean.

Aplikazioa eskola askotan erabiltzen denez, eta ikasle kopurua handiagoa denez, deskontuak eskaintzea erabaki dugu. Horrela, bezeroei zenbat eta aplikazio gehiago eskuratu, orduan eta deskontu handiagoa izango dute:

- **10 aplikazio edo gehiagoko bezeroei:** %5eko deskontua.
- **20 aplikazio edo gehiagoko ikastetxeei:** %10eko deskontua.

4.2.PREMIUM:

Aplikazioan bi eredu egongo dira: basikoa eta Premium-a, eta bakoitza desberdina izango da edukien eta zerbitzuen arabera. **Basikoa** prezio merkeagoa izango du eta oinarritzko funtzionalitateak eskaintzen ditu, hala nola, tresna pedagogikoen erabilera, funtsezko hezkuntza-edukiak eta laguntza mugatua. **Premium** aukera, aldiz, diru gehigarria eskatuko du eta aukera hori hautatzen duten ikastetxeei hezkuntza-eduki aurreratuak eskainiko dizkiegu, desgaitasunak dituzten ikasleentzako laguntza pertsonalizatuagoarekin. Zerbitzuen prezioak desgaitasunaren arabera egokituko dira:

Itsu edo gorrak diren ikasleentzat:	TDAH edo dislexia duten ikasleentzat:
Basikoa: 6.000 euro urtean.	Basikoa: 3.000 euro urtean.
Premium: 8.499 euro urtean.	Premium: 4.249 euro urtean.

Horrela, ikastetxeek beren beharren arabera aukera dezakete zer eredu aukeratu, oinarritzko edo aurreratua, ikasleen laguntzak eta hezkuntza-edukiak optimizatzeko.

4.3.DIRU-LAGUNTZAK:

Hasieran, aplikazioa garatzeko bankutik mailegu bat eskatuko dugu, proiektua finantzatzeko. Irabaziak lortzen ditugun heinean, bankuari dirua bueltatuko diogu

eskatutako interesekin. Enpresa ondo joanez gero, zorrak pixkanaka ordainduko ditugu, hazkunde ekonomikoaren helburua lortzeko. Publizitateari dagokionez, bi estrategia erabiliko ditugu:

1. Webguneetan iragarkiak jarriko ditugu, publikoari modu zuzenean iristeko, eta Cookieak erabiliz interesatuta dauden bezeroei helaraziko zaie publizitatea.
2. Enpresaren ordezkari batek eskoletan bisitak egingo ditu, aplikazioaren abantailak aurkezteko eta informazioa eskainiz.

Proiektua abian jartzeko, gutxi gorabehera 10.000 eta 20.000 euro bitarteko kostua izango da. Bankuari mailegu bat eskatuko diogu, %15eko interes-tasarekin. Hala ere, bazkideek ere inbertsioak egingo dituzte, horregatik bankuari diru guztia ez dugu eskatu behar.